

Gorbei ez daukagu beti txapel zuri  
ezta Eretza be odoi-moltzo arrez.  
Aro ori laburra dok, iraitzekoa;  
zerbait atsedendu, ta jarrai bearrez,

Baiña ik, kaskarin lez ergel, eugan dagi  
«Poz-aro yoagu, betor atsegia;»  
irrits-ala, josta-ardoa dedagun,  
azkeak gaitean oian-sai adiña».

Ta besteratuko aun erio-untzi  
nundikan dabilen bai al dakik, gero?  
Ara: gaur, lurruna-bide, bizkor gabiz;  
ainbeste ostera yagizak uñero.

Ardurage ori, abil bildurpean.  
Untzi gaizkor ori el oi dok ixiltsu,  
ebasle gisan, ta txisturik jotzeka.  
Bide-zorroa gert ez-ta, dei ba'zaitu?

Zorro-gertokia ba-dogu arean;  
masti beti jator, —Eleiza kistarria—.  
An sar ta gabiltzan, naitara dastatuz  
aienen odola, —jainkozko eskarra—.

### ILLUNPEAN ZEAR

Illunpean zear zurbil doaz  
senar-emazte bi gazteak;  
ibilmin doaz ta dardarti,  
etsai baltzaren bildurpean  
gorputz-arimak izu gorri;  
izarrak goian dizdiz illa,  
arnas-ots baten basa-pizti.

Alboan zabal eremua...  
Autsa arrotuaz dabiltz azkar;  
axerdak dardar aize ikutuz,  
otoitza yake arei ezti,  
ezpan ertzean eder urtuz;  
aspertu barik triki-traka,  
biotz-jario alkar ustuz.

Asto gaiñean doa andrea,  
larrosa begi biak ñirñir;  
bular ondean daroa aurra,  
ama baiño be ederrago,  
eztia baizen leun-samurra;  
auzoan doa, pausu lerden,  
kemen aundiko, zut, senarra.

Noizka gazteak biotz baikor  
emaztea nai dau poztazo.  
Urrun, goia asi yake urdintzen,  
baita be uri baten torre  
t'etxe garaiak argiratzen.  
Jose ta Mari dira, igesi,  
Aigiton raiño laster eltzen.

### LARROSA LEGOR

Ene biotz edermin, goazen atera  
egarri bizi au pizkat arintzera.

Negu buru soil ta arnas otza joan da-ta,  
gabiltzan landara aize billa eta arbazta.

Zelaien loratzea! Oro erne-naia:  
Izadi amandreren berbizte garaia.

Dana bizitza barri. Lurraren antzalda!  
Negu'k illik eukana barriro biztu da.

## GOIZNABAR

Baratza daukot aurrez; sar nadin bertara;  
ta i, biotz edermiña, lasa adi naitara.

Eguzki adar gori —intz zelai zalea—  
gesal-oia laga ta goiztik da jagia.

Maite mizkerietan diardu baratzan,  
aren lagun, oldozkor, ni bere loratzan.

Baratz oni eun esker, ain dozu beratza!,  
ederkun egarriz ez yat ilgo biotza.

Gari-azi soloan egotzia iduri,  
barrun dabilkit norbait jaio naita urduri.

Biotz semeak dozuz, barruko taupadak,  
jauzkan eguzkitara urten nai leukenak.

Gora doa, lurra urratuz, sorgin-ira kimu;  
an, bigura be pikor zurizkaz daukagu.

Bizitza danok eder uda el-garaiez,  
ta, bai baratz bai biotz, oro erne gurez.

Lilitegia bai dot bitaiz ornidua!  
Dana lore, pipilla, adar apaindua.

Ikus-ala landare ta loratan oro:  
akara ta larrosa, zangorri ta mao.

Ak gorri kukulua, onek buru zuri,  
ezti darioela danak txau ta guri.

Gau-izarren antzean, daukadaz dizdizka,  
aizek jkutzekoan polito zabuka.

Toki zorakor zear ara-on a ibilki,  
larrosondoa abar zut ederrez dot aurki.

## AILLA

Aize-begira datza, arduraz zaindurik,  
baiña larrosa baga, loreil-erdi jzanik.

Ezin etsian nago, larrosondo gaztel!  
Abar zut, ta lorarik ez; legorra ete?

Ur dabil lora jorran gizon bat zaintsua,  
bein gogait egiteke lanari lotua.

Esaidazu, baratzain, jakingura ots nik,  
lora aroan gara, ta au zelan bape barik?

—Bai, lora aro da; baiña, naita ondo landu,  
larrosarik ez dakar; legorra baitozu.

Orri evez jantzia, ta antzu! Bat-batean,  
Kristo'ren pikondoa senak emon eustan.

Madari-ondoari, zardiña jzan arren,  
alerik ez ba'dakar, aizkora ezartzen.

Areitz enbor jgarra mendian zertako?  
Etxaldera dakarre, narraz, sutarako.

Listor illik ikusi ete erauntz atean?  
Or nagien zoria. Jarduizu lanean.

Betaz aratu begi nork bere burua,  
ta alegi ontan, bekus, ete dan sartua.